

Heri Aldizkaria


Otamotz

1998ko urtarrila 33. alea

Etxeberri
jatetxea
saritua

Zintzo-
Mintzok
lehenda-
kari berria

Ikastolak
aldizkaria
sortu du



ESKOLA KIROLEKO GEHIGARRIA



Neguan bete-bete gauden arren eta Urretxuko festak urruti badaude ere, oraingo honetan jai giroko argazki batekin gatoz. Urretxuko festatan ateratako argazkia da gainean duzuen hau. Argi eta garbi ikusten den moduan argazki hau, Gernikako Arbola plazan ateratakoa da. Ikus dezakezuen bezala, Txirimiriko lagunek ez zuten denbora alperrik galtzen. "Miss" artean eta aurrean, osagai gisa, txanpaina. Nola bukatu ote zuten hauek eguna?

Argazki zaharrenbat erakutsi nahi izanez gero, Zintzo Mintzora bertara ekar dezakezu, Labeaga 12 etxeazpia, Goierri ondoan. Telefonoa:725775



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943725775 **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldua. **Diseinua:**Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.


Pello Akizu, Zintzo-Mintzoko lehendakari berria

Urteroko zitari eutsiz, Zintzo-Mintzoren VI. Batzar Nagusia burutu zen urtarilaren 31an. Euskararen aldeko konpromezua beste urtebetez hartzeaz gain, lehendakari berria hautatu da aurtengo Batzar Nagusian. Aldizkari taldeak orainartean lehendakaria izan den Peio Biain eskerrak emanez agurtu nahi luke eta era berean, Pello Akizu, lehendakari berriari ongi etorria luzatu. Hona hemen bere hitzaurrea.

Euskaltzale lagunak:

Bi hitz eskatu dizkirate Zintzo-Mintzoko lehendakari berri bezala. Ez naiz ni oso gizon trebea hitz kontutan baina saiatuko naiz.

Badira sei urte gure elkarte hau sortu zenetik eta hasierako eta ondorengo gora-behera guztiak gaingiduz tinko jarraitzen du gure herrian euskararen mundua zabaldu nahian. Batzuen ustez horrelako elkarteak ez omen dira behar, hobe ala balitz, baina guztiok badakigu gure eguneroko jardunean zein zaila egiten zaigun euskaldunoi (euskara dugunoi) euskaraz bizi ahal izatea. Euskararen egoera gertutik bizi dugunok ongi ezagutzen dugu zer den erdararen ondoan bizi izatea. Baina gure asmoa ez da aldarikapenetan erortzea, gure asmoa ekintzen eta plangintzen bidez geroa ziurtatzea da. Badira oraindik zenbait euskaldun "inozo", egoera, bere kabuz aldatuko dena uste dutenak, historiak aldiz, hainbat bider erakutsi digu hori ez dela horrela gertatzen.



Zintzo-Mintzoren atzean oso iritzi desberdinetako jendea dago, baina guztiok bat gatoz euskarak merezi duela eta guztion laguntza behar duela pentsatzerakoan. Urte hauetan lanean aritu diren guztiei eskerrik asko beroenak eta aurrerantzean gurekin izango ditugulakoan nago. Bestalde dei bat luzatu nahi dizuet euskaldun guztioi denon artean gure ama hizkuntzari beharrezkoa duen bultzada eman diezaiogun.

Bukatzeko Artzeren poema bat jarri nahi nuke. Laister arte.

*Zaila ba zen ere lehen
areago da orain hemen
euskararen iraupena
"zenbat" en eskuetan bainoago
"nolako" euskaldunengan dago.*

J.A. Artze

Pello Akizu, Zintzo-Mintzoko lehendakaria.

Lanbira
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

GANBARA
LIBURUDENDA
Labeaga, 52
☎ eta faxa: 72 50 45

Goizalde, 3. adineko abesbatza

Oraindik urtebete ere ez du egin Goizalde, Urretxu eta Zumarra-gako jubilatuen abesbatzak. Iaz, ekaina partean, Zumarragako Jubilatuen Batzarrak, Alejandro Domingezi deitu eta zuzendari lanak egiteko eskatu zion. Zertxobait beranduago Urretxuko Jubilatuen Batzarretik ere deitu zioten eta jende gehiegi ez zegoenez, bi abesbatzak batzeko ideia bururatu zitzaion. Alejandrok 77 urte ditu eta 62, Zumarragako Musika Bandan tronpa jotzen egin ditu. 50. hamarkadan "katuska" eta "La taberna del puerto" zar-tzueletan, Baritonoa izan zen. Parrokiko abesbatzan eta Goiargin ere aritua da. Egun, Goizalde abesbatzan zuzendari lanak egiteaz gain, Tourseko Martin Deunaren parrokiko eta Lourdesko Ama elizako koruetan ere kantatzen du.



Nahiz eta solfeoko ikasketarik ez izan, ilusio handiz dihardute kantuan

Zer asmorekin sortu da Goizalde abesbatza?

Jubilatuok egiten ditugun ekintzen artean ekintza bat gehiago da. kokatu beharra dago. Antzerki, gimnasia...eta beste ugari egiten diren bezala, Koroarena beste ekintza bat gehiago da.

Zenbat partaide zarete?

Guztira, 50 eta 77 urte arteko 30 partaide gara. Gizonak ditut gutxi, 4 besterik ez.

Zer pieza abesten dituzue?

Haúrtxo maite, Noche de Dios, Tecla, Uso Xuria, Itxasoan, Hara nun diran, Aurtxo txikia...

Zein da entseiu eta ekitaldietan izaten duzuen oztoporik handiena?

Zalantzarik gabe solfeoa ez jakitea Entzunez ikasten dute. Zinta batean abestiak entzunez eta nik abestuz. Bitxia da. Notak ez jakitean, abestietako letren gainean marra eta puntuak jartzten dizkiet.

Marrak, iraupen luzeko nota dela esan nahi du eta puntuak berriz iraupen laburrekoa. Hala ere, nahiz eta solfeoaren traba izan ilusio handiz arituko dira. Sekulako ilusioa dute ikasteko. Ekitaldietan kantatzea ikaragarri gustatzen zaie. Boluntate handia dute. Batzuk, euskara ez jakin arren, ederki asko ahoskatzen dute.

Zenbat emanaldi eskaini dituzue orainartean?

Orainarte bi kontzertu eskaini ditugu. Lehena, Zumarra-gako jubilatuen egotzan izan zen abenduaren 15ean eta lehen kontzertua izateko oso ondo kantatu genuen. Noski, ez Donostiako Orfeoia bezala baina tira!, bide onetik goaz. Gabon kanta bat, Caña Dulce, Boga-Boga, La Bella Lola, La Barca de Oro eta Agur Jaunak kantatu genituen. Ondoren, Santa Zezilia eguna zela eta Urretxun abestu nahi genuen baina koruko partaide batzuk sukarra zutela eta bertan behera

utzi beharra izan genuen. Urtarrilean eskaini dugu gure bigarren ekitaldia. Legazpi Eskoletako Zineman izan ginen, "bilobaren eguna" zela eta. Aurrerantzean, Geriatrikoan, eta noski, Urretxun ere kantatu nahi genuke.

Zenbat egunetan en-tsaiaitzen duzue?

Astean bi bider entsaitzen dugu. Astelehenetan Urretxun eta ostiraletan Zumarragan. Lau t' erdietan hasten gara eta ni aspertzean amaitu. Eta ez naiz berehala aspertzen. Batzuk kexatzen dira bai, kantatzen eta Bingoan jokatu nahi dutela esanez. Ondorioz egun batzuetan laburragoa egiten dugu.

Zer nolako giroa duzue Goizalde abesbatzan?

Oso giro ona. Tira, ez dugu festarik egiten baina giro ona. Batzuetan gogor samar egiten diet ez baitira isiltzen. Nik behin eta berriz esaten diet: Entsaiaitu beharra daukagu!

TXIKIMOTZ

ESKOLA KIROLEKO III. GEHIGARRIA



*Abenduan izandako atsedenaldi luzearen ondoren, berriz ere zuekin gara **TXIKIMOTZ** eskola kiroleko gehigarrian, urtarrian zehar gertatutakoaren berri emateko asmoz.*

Urte berriaren etorrerarekin gainera zuetako askok, gazteenak batez ere, kirolez aldatzeko aukera izan zenuten. Modu honetan kirol ugari egin eta ezagutzeko parada izango duzue, honek etorkizunean kirol zehatz bat aukeratzeko garaian lagundu egingo dizuelarik.

TXIKIMOTZ

KIROLETAKO EMAITZAK

(98-1-31)

BENJAMIN MAILA

SOKATIRA

ALEBIN MAILA

Areto futbola

INFANTIL MAILA

Eskubaloia. NESKAK.

Partehartzaileak lehen fasean:

La Salle neskek 2 tiraldi irabazi zituzten.
La Salle mutilak 8 tiraldi irabazi zituzten.
L. Ama A. 4 tiraldi irabazi zituzten.
L. Ama B. ez zuten tiraldirik irabazi.
Zelai-Aristi 6 tiraldi irabazi zituzten.

Finalurrekoak:

La Salle mutilak - L. Ama B.
Zelai-Aristi - L. Ama A.

Finala:

La Salle mutilak - L. Ama A.

Sailkapena:

1-La Salle mutilak.
2-L. Ama A.
3-Zelai-Aristi.
4-L. Ama B.
5-La Salle neskek.

LOKOTS BILKETAK

Partehartzaileak lehen fasean:

	Denbora
La Salle A mutilak:	3,04
La Salle B mutilak:	2,46
La Salle C neskek:	3,00
L. Ama A	2,49
L. Ama B	2,44
Zelai-Aristi	2,46
Konbinatua	2,50

Finaleko sailkapena:

1-La Salle A
2-L. Ama B
3-L. Ama A
4-Zelai Aristi

MUTILAK

Domingo Agirre A - Gainzuri B	5-8
(Jon Rodriguez partiduko goleatzaile nagusia 5 golekin)	
Haztegi A - L. Ama D	9-9
La Salle A - L. Ama C	4-12
(Jon Alzizar partiduko goleatzaile nagusia 5 golekin)	
La Salle B - L. Ama A	5-1
L. Ama B - La Salle C	4-17
Gainzuri A - Haztegi C	10-3

NESKAK

La Salle B - La Salle A	13-3
(M ^a Carmen Segovia partiduko goleatzaile nagusia 10 golekin)	



Olazabal B - La Salle C	6 - 10
(Rakel Mendiola partiduko goleatzaile nagusia 5 golekin)	
La Salle B - L. Ama B	0 - 11
La Salle A - Olazabal A	0 - 9
Iparragirre - L. Ama A	1 - 7

Eskubaloia. NESKAK. Sailkapenak

1.taldea	J	I	B	G	Pt
1.-Olazabal A	2	2	0	0	4
2.-L. Ama A	2	2	0	0	4
3.-Ordizia	2	1	0	1	2
4.-Haztegi A	2	1	0	1	2
5.-Iparragirre	2	0	0	2	0
6.-La Salle A	2	0	0	2	0

2.taldea	J	I	B	G	Pt
1.-L. Ama B	2	1	1	0	3
2.-La Salle C	1	1	0	0	2
3.-Olazabal B	2	1	0	1	2
4.-Haztegi B	1	0	1	0	1
5.-La Salle B	2	0	0	2	0





FUTBOLEKO ENAITZAK

(98-1-31)

INFANTIL MAILA

Futbola. Mutilak. (1.taldea)

La Salle C - Haztegi A 9 - 3
Iparragirre (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-Iparragirre	1	1	0	0	3
2.-La Salle C	1	1	0	0	3
3.-Haztegi A	2	0	0	2	0

Futbola. Mutilak. (2.taldea)

La Salle B - Haztegi B 2 - 13
L. Ama (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi B	2	2	0	0	6
2.-L. Ama	1	0	0	1	0
3.-La Salle B	1	0	0	1	0

Futbola. Mutilak. (3.taldea)

La Salle A - Haztegi C 0 - 12
Olazabal (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi C	2	2	0	0	6
2.-Olazabal	1	0	0	1	0
3.-La Salle A	1	0	0	1	0

KADETE MAILA

Futbola. NESKAK.

Haztegi - La Salle 3 - 2
L. Ama - Olazabal 5 - 1
Iparragirre (Atsedena)

	J	I	B	G	Pt
1.-Haztegi	7	7	0	0	21
2.-L.Ama	8	6	0	2	18
3.-La Salle	7	2	0	5	6
4.-Iparragirre	7	1	2	4	5
5.-Olazabal	7	0	2	5	2

TXIKIMOTZ

GURUTZE FERNANDEZ:

Futbolean nesken egoera aldatzen ari da



HERRIA: URRETXU

ADINA: 18 URTE

TALDEA: URRETXU-ZUMARRAGAKO
IKASTOLA

GOLAK: IAZKO DENBORALDIAN 27

AURTENGOAN 97-98 DENBORALDIAN 18 GOL SARTU DITU ORAINARTE.

EUSKAL SELEKZIOAREKIN BI ASTETIK BEHIN JOATEN DA ENTRENATZERA.

EUSKAL SELEKZIOAREKIN IAZ ESPAINIAKO TXAPELDUNA IZAN ZEN.

AUKERA ONA IZANEZ GERO PREST LEGOKE ATZERRIRA JOATEKO FUTBOLEAN JOKATZERA. HERRIALDE BATZUE-TAN MAILA HOBEA DAGOELAKO ETA NESKEN FUTBOLA PROFESIONALA IZATEAN ORDAINDU EGITEN DUTE JOKATZEAGATIK.

Noiz hasi zinen futbolean jolasten?

Hasiera batean futbol aretoan jokatzen nuen ikastolan eta gero futbolean jokatzen hasi nintzen pixka bat zaharragoa egindakoan.

Nola zabiltzate aurtego liga txapelketan?

Lehenengo gaude oraingoz behintzat.

Mailaz igotzeko itxaropenik ba al daukazu?

Bi fase jolasten dira, lehenengoa orain jokatzen ari garena da eta ondoren igoerako fasea. Iaz bigarren fasean nahiko gaizki aritu ginen, baina aurreko izazko esperientziarekin hobeto ibiliko garela espero dugu.

Aritu al zara inoiz selekzioaren batekin jokatzen?

Bai, gipuzkoako selekzioarekin hirutan jokatu det, baina azkena oraindela 2 urte. Euskadikoarekin berriz azken bi urteetan jokatu det. Eta Espainiako selekzioarekin ere azken bi urteetan aritu naiz, 18 urte azpiko selekzioarekin jokatzen, iaz Italira joan ginen txapelketa batean parte hartzera eta aurreko Bartzelonan Holanda, Irlanda eta Txekiaren aurka aritu gara txapelketa batean. Talde hauek oso maila ona dute askotan jokatzen baitute elkarrekin eta gu berriz oso gutxitan elkartzen gara.

Nesken futbola baztertu samar dagoela ez al zaizu iruditzen?

Bai, baina gero eta gutxiago. Kalitate aldetik mutilen eta nesken futbola antzerakoa da, baina mutilek indar eta abiadura gehiago daukate guk baino.

Neska izateagatik esaten al dizute zerbait, futbola mutilen gauza dela edo horrelakorik?

Lehen bai, baina orain jadanik ez, jendea ohitu egiten delako eta gauzak pixkanaka aldatzen ari direlako.

Eskola kirolean ibiltzen zinenen burutik pasatzen al zitzazun Espainiako selekzioarekin jokatzerira iritsiko zinenik?

Ez, ez zitzaidan burutik horrelakorik pasatzen, nik ondo pasatzeko bakarrik jokatzen nuen beste helbururik gabe.

Zein aholku emango zenieke eskola kirolean dabilzan gazteei eta batez ere neskeei?

Kirola gustukoa badute jarraitzeko egiten eta neskei esango nieke gauzak aldatzen ari direla eta kirola ez dela mutilen gauza bakarrik



Gurutze ezkerrean Euskal selekzioaren kamiseta jantzirik

Ze iritzi duzu Clintonen aferari buruz?



Agustina Etxaniz

Nire ustez egia da. Baina dena den ez lioke lehendakari izateari utzi behar horregatik. Gauza batek ez baitu zerikusirik bestearekin



Ana Isabel Segado

Monika Lewinskyren muntaia bat dela iruditzen zait Clinton-i dirua ateratzeko. Neska honek Plazido Domingori gauza berdina egin nahi izan zion eta gainera bere mutil laguna izandakoak zoro xamarra dela aitortu du.




Jorge Ibañez

Clinton?Clinton? Zer gertatu da ba Clintonekin?




Aitor Dionisio

Paula Jones en muntaia bat da. Afera duela 4 urte gertatu zelako eta orain arte ez duelako ezer esan. Nire iritzi Bill Clintonek EEBBko presidente izateari utzi egin beharko dio istilu honen ondorioz.



Anjel Jauregi

Guzti hau politika kontua da. Clintonen izena handitzeko muntaia da, eta ez det uste istilu honengatik Clinton bere kargutik kenduko dutenik.



Amaia Legaristi

Jun da jakin. Auskalo zer den, muntaia edo egia. Baliteke guztia egia izatea.



BAPRI

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

Argitarapen honen edizioko laguntzaila:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurritan

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



Napar sortzaileak, Hits&Fits taldeak antolatutako hitzaldiak

Urretxu Zumarragako **Hits & Fits bandak** antolatutako urtarri- la eta otsailaren hasieran hainbat hitzaldi izan ditugu **napar sortzaileei buruz**. Miguel Sanchez Ostiz, Txema Larrea, Aingeru Epaltza, Joxe Mari Aranalde eta Jone Lajos izan dira mintzalariak. Bestalde otsailaren 15ean, Lizarra ezagutzeko ibilaldia egin da. Argazkian, Joxe Mari Aranaldek Xalbador Pertsulariari buruz Legazpi Dorretxean eskainitako hitzaldia ikus dezakezue. Andoni Salamerok aurkezle lanak egin zituen.

Aipagarria da herriko zenbait musikaririk hitzaldiak girotzen jardun dutela, hala nola, **Aitor Bastarrika, Guillermo Aretzaga, Jon Goenaga, Iñigo eta Mikel Peñagarikano, Mikel Alustiza eta Juan Luis Aranburu**.



Bake epaitegi eta erregistro teknikariak Urretxun lanean

Urretxu, Antzuola eta Elgetako herriak, "batu" egin dira **Bake Epaitegi** eta **Erregistro Zibila** izateko. Eusko Jaurlaritzako Justizi Sailak, zerbitzu hau izateko, 7.000 biztanle baino gehiago behar direneko legea du indarrean eta ondorioz, hiru herri hauek elkartzea erabaki dute zerbitzu hau

izateko helburuarekin. Guztira, 9.170 biztanle dira. Akordioaren ondorioz bi teknikari lanean hasi ziren urtarrilaren 21ean, **Justizi Ofizial bat eta justizi agente bat** hain zuzen. Urretxun, asteleheneratik ostiralerako zerbitzua eskainiko dute.

Uggasak antolatutako merkatarientzako hitzaldiak

UGASSAk antolatuta, merkataritza-eremuko hainbat hitzaldi izan ziren Urretxuko Kultur Etxean.

Ihardunaldiei amaiera emateko Gandiako Merkataritza Elkarteko bi ordezkari Urretxun izan ziren beraien ikuspuntua azalduz. Udaletxeak, herrietako merkataritzarekin konprometitu eta bien artean, elkarte bat sortu beharko luketeela esan zuten, indar eta eragin gehiago izan dezan herrietako merkataritzak. Bidegarriak diren proposamen eta ideiak aurkeztu behar direla azpimarratu zuten, ez gero bete ezingo diren kimerak.

Iparragirreraren eskultura herriaren sarreran

Iparragirreraren eskultura erraldoi bat jarriko da Urretxuko sarreran, hain zuzen, Deskarga aldetik datorren bidean. Eskultura, Bittor Hernandez urretxuarrak egin du eta ia 4 metrotako luzera du. Poliester zuntzez eginikoa da eta grauez ere ikusi ahal izateko argiztatu egingo da. "Hormigones Urretxu" izeneko enpresa eta Aparizio cruzoaren tartean ezartzeko asmoa dute otsaila amaitsu baino lehen.



Patxi Ormazabal, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua Zumarragan izan zen udalari Mendizabal poligonoko lurak emateko. Lur hauetan, orotara, babespen ofizialeko 448 etxebizitza egin dira. Intxaurrendoren ondoren, Gipuzkoa osoan egin den etxe bizitza kopuru handiena da. Lankidetzak hitzamenak guztiz betetzeko automobilentzako aparkaleku bat eta bi parke infantil egin behar-ko ditu udalak.



Mutua General de Seguros

Iparragirre, 11 URRETXU tel:722599

Ignacio Barrio

Modernitateari aurre eginez



Nahiz eta 80 urte laster beteko dituen, bere bizitzako pasadizu guztiak atzo izan balira bezala gogoratzen ditu. Buru argiaz gain, umore ona ere baduela erakutsi du, elkarrizketa hasi aurretik, gezurren bat kontatuko duela esan baitigu. Zergatik galdetzean, komunikabide guztiei gauza bera erantzuteaz aspertu samar dagoela erantzun digu. Ez zaio arrazoirik falta, OTAMOTZez gain, Diario Vasco, Egin, Euskaldunon Egunkaria, Kaixo, eta El Mundo egunkariei eta Arrate eta Onda Cero irratiari kasu egin behar izan baitie. Bere lanari maitasun izugarria dio. Atabal eta danbolinen inguruko azalpenak ematerako orduan garbi ikusten da hori. Duela 20 urte hasi zen atabal eta danbolinak egiten eta urtarrilean, Merkataritza Ganbarak, saritu egin du diploma batekin.

Ignacio Barrio Urtizberea

79 urte ditu. 18 urte arte Irunen bizi izan zen eta Espainian zehar soldadu ibili ondoren 1945ean betirako itzuli zen Urretxura.

1978an hasi zen kasualitatez artisautzan.

20 urtetan, beti ere eskuz, 800 atabal eta danbolin egin ditu.

Erroman ere ikus daitezke bere danbolinak

Nola sartu zinen musikaren munduan?

Irunen bizi nintzela, alardean atabala jotzen ikasi nuen. 1947an, San Antonioko jaietan, "Oria" ezagunak jotzen ari zirela, tanbor bat zuten eta dibertitzeko asmoz, jotzea erabaki nuen. Ondoren, gizon pare bat etorri eta bateria jotzeko norbaiten beharra zutela esan zidaten. Bateria jo nik? esan nien lehen momentuan baina gero animatu eta azkenean, 1947an, "Los bohemios del Goierri" sortu genuen. Araba eta Nafarroan asko jotzen genuen. Ondoren, 1960an, Urretxuko txistulari taldearen lehen emanaldia izan zen, ni, atabalarekin, tartean nintzela. Legazpiko Musika Bandan, 30 urtez jo nuen bonboa eta Urretxuko Bandan ere bai. 1991an aldakatik operatu ninduten eta dena utzi nuen.

Zein urtetan ekin zenion atabalak eta danbolinak egiteari?

1978an, atabal pare bat egin nuen. Jarraian danborradan jotzeko 50 danbor eta ondoren, Jesus Segurola txistu egilea etorri eta danbolin eta atabalak egiteko gai nintzela esan zidan Jose Ignacio Ansorenari pare bat egiteko eskatuz. Nik hasieran ez nituela egingo esan nion. Jose Ignacio Ansorena ez da musikari arrunta, katedratikoa baizik eta nola egingo nizkion ba nik atabalak eta danbolinak? Azkenean egin nion ordea eta gutun bidez, zer aldatu behar nuen agindu zidan. Honela bada, berak agindutakoa bete eta hori hasi zen dena. Neurri batean, Ansorenari zor diot artisautzan hasi izana.

Norentzat egin dituzu atabalak eta danbolinak?

Hasieran iparraldetik eskatzen zizkidaten asko. Erromarako ere eginda nago. Pasionisten zuzendarientzat, Orbegozorentzat egin nuen. Hemengo da



baina Erroman dago. Bartzelona, Madrileko Euskal Etxearentzat ... Batzuk jotzeko eta beste batzuk apaingarri gisa eskatzen dizkirate. Gipuzkoan leku guztietatik eskatzen dizkirate.

Zenbat pieza egin dituzu orainartean?

20 urtetan, 800 inguru. Prozesu luzea da. Fabrikan azkarrago egiten dituzte baina nirea artisau-lana da. Askotan, amaitzeko gutxi falta dela, egurren bat apurtu eta berriz ere dendara joan behar izaten dut. Pazientzia handia behar da. Nik, etxeko sukaldean egiten dut lan. Gogoa dudanean, ordutegi finkorik gabe, nire tailertxoan sartu eta hantxe gustura egoten naiz.

Inoiz pentsatu al duzu artisautzatik bizitzea?

Ez. Behin Ramon Arbizu alkate zela, klase batzuk emateko tailer txiki bat jarriko zidala esan zidan baina ni ez nago horretarako. Ordu jakin batzuk

errespetatu beharra dago eta niretzat, aldaka eta zerbikaletako arazoak direla eta, ez da gomendagarria.

Ferietara joateari utzi egin al diozu?

Bai. Dieta ona egon ezean ez naiz joaten. Jendeak, joatea komeni zaidala esaten dit propaganda egiteko baina nik ez dut propaganda beharrik. Nahiago nuke momentu honetan 3 hilabetetan inork deituko ez banindu. 5 atabal eta 11 danbolin egiteko enkargua daukat eta horrek lana ematen du.

Zenbat sari jaso dituzu orain artean?

1993an omenaldia egin zidan Urretxuko Udalak

esker ona agertuz. 1995ean Euskal Herriko Txistulari Elkarteak, zilarrezko domina eman zidan. Oso egun ona igaro nuen Errenterian. Txistulariek arku egin zidaten eta Euskal Konposagileen artxiboan izan ginen. Eta azkenik, orain, Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak emandako diploma. Oso ondo tratatu naute leku guztietan eta batik-bat, txistulariekin, harreman bikaina dut. Bertakoez gain, Elgoibar, Txistulari Elkarteko idazkaria den Sarasuarekin... guztiakin dut harreman ona.

Norbaitek jarraituko al du tradizio hau?

Ez. Lanean nagoela, bilo-

bak etxera etorri eta zertan nabilen ere ez didate galde-tzen. Ez dute interesik. Hala ere pozik nago musika munduan baitabilta. Iñakik, Hot Dogs taldean bateria jotzen du, Gorka Zumarragako Txistulari Taldean dabil eta Maitek, klarinetea jotzen du Zumarragako Musika Bandan.

Danbolinaren anekdota

Larunbat batean etxera nindoala, gizon batek kalean gelditu eta zera esan zidan:

Aizu mesedez, danbolinak egiten dituen gizonen bat ezagutzen al duzu?

Nik egiten ditut.- erantzun nion.

Ez, nik esaten dudana zaharragoa da.

Nola du bada izena?- galdetu nion.

Ignacio.

Ni ere Ignacio naiz ba.- berriz nik.

Ez. Hura zaharragoa da eta artisau ferietan aritzen da.

Nik nire artean, adarra jo-tzen ari zela pentsatu nuen ni ere ferietan ibiltzen bainin-tzen. Azkenean zera galdetu nion: Baina zu txistularia al zara? Zertarako behar duzu zuk danbolin bat?

Gaztainak erretzeko.

Orduan ulertu nuen dena, Ojangurenengatik ari zen galdezka.

Etxeberri jatetxeko Zubizarreta sendia saritu du Euskal Gastronomi Akademiak

Ez da jatetxe honek jasotzen duen lehen saria. 1982an Gastronomi kritika eta 1984an, Gastronomiaren Sari Nazionala sariak jaso zituen Madrilén. Hala ere, orain, lau belaunaldi saritu direla dio Jose Manuel Zubizarretak eta horrek esanahi handia duela. Jose Maria Busca Isusi lagun eta modu batean, bere irakaslea ere izan zen eta orain, bere izena daraman saria jaso du: Jose Maria Busca Isusi saria.

Zer suposatzen du sariak zuentzat?

Iharduera bat saritzeak esanahi handia du guretzat. Etxe honetan, gure aiton-amonak hasi ziren, gurasoak ondoren, orain gu eta seme-alabak ere badatoz. Lau belaunaldia dira beraz. Jose Maria Busca Isusi sariak balio sentimentala du niretzat. Lagun handiak izan ginen eta elkarrekin lantxo batzuk egindakoak gara. Sukaldaritzaren munduan bide berriak urratu zituen. Agian, lehendik bazeuden bide hoiek baina Busca Isusi izan zen bide berri horien bultzatzailea. Gogoan dut, garai batean Madrilera joaten zela telebistara, hitzaldi asko ematen zituela eta Bilbora, Correo egunkarira ere joaten zela. 13 pezetako menuak

proposatzen zituen eta jendeak ez zuen aintzartat hartzen. Baina arrazoia zuen. Orduko soldatak ikusita, etxeko andreak, ez zuten beste erremediorik. Busca Isusi ez zen behar bezala baloratu. Bada esaera zahar bat erdaraz kasu honetarako: "En tu tierra no serás profeta".

Nolako izan da Etxe Berriren bilakaera?

Oso erraza da azaltzea. Goierriko zonalde hau beti izan da industrial. Garai batean hiru tren geltoki zeuden hemen, Baskongado,

Urola eta Renfekoa. Orduan,

jende asko sartzen zen herrira. Gure negozioa, industriaren bilakaeraren baitan eraman dugu. Bezeroak erakutsi digu zer bide jarraitu eta ze



aldaketa egin. Hasi, edifizio zaharrean banketeak emanez hasi ginen. Gero, ez zela nahikoa ikusi genuen, bazkaltzera etortzen ziren industriariak, gelak behar zituztela konturatu bainekin. Ondorioz, hotela eraiki eta hasiera batean genituen jangelak aldatu eta erosoagoak jarri

genituen. Hauxe izan da familiak jarraitu duen bidea eta hala jarraitzen dugu. Orain, baserriko ganbarak ziren tokian handitze lanak egin ditugu 11 gela gehiago jarritz.

Jatetxeak izen ona du. Nola lortzen da hori? Non dago sekretua?

Sekretua bi alorretan dago. Bata, familiar. Zubizarreta sendian harreman onak ditugu eta hori beti da lagun-garri. Bestalde, jateko produktuetan ere, asmatu egin behar da. Hau da, produktu ona erosi beharra dago. Produktuak erosterakoan argi uzten dut nik gustokoen zein dudan, bestela, badakite ez dudala gehiago erosiko. Bestalde, hilabete behin, inguru etako merkatu guztiak ikustera joatea gustatzen zait, ze giro dagoen eta ze produktu dagoen aztertzeko. Produktu berri asko agertzen ari baitira. Busca Isusik beti esaten zuen, hemen hasi eta 200 kilometroko inguruan, produktu guztietan onena daukagula. Arrain, haragi eta barazki onenak inguruan ditugu. Produktuaren gainean egon beharra dago beti.

horretan ezkontzen dinamika horretan sartzen gara eta urrira arte. Abuztuko hilabetean izan ezik larunbatero izaten dugu ezkontza-ren bat. Dena den, orain jende guztiak larunbatero ezkontza nahi izaten du eta hori guretzat arazo bat da, ez baitugu denontzat lekurik larunbateetan.

Horrenbeste urtetan famatu bat baino gehiago pasatuko zen zuen jatetxetik.

Bai. Dena den, guztiei tratu bera ematen diegu. Nahiago dut izenik ez ematea baina izan da jende garrantzitsua bai. Kirolariak, toreatzaileak...

Euskal Herrian, esaten den bezain ongi jaten al da?

Bai. Gure kulturaren ezaugarri bat da. Hala izan da eta aurrerantzeran ere hala izango da. Txuletak adibidez



Lagun eta irakasle izan zen Busca Isusi J.M. Zubizarretarentzat.

Euskal Herrian datzen duzu? sukaldari talde bat fama onekoa dago. Zer moduz datoz gazteak?

Menu asko daude diruaren arabera. Koktel bat pikatzeko aukera zabala emanaz...

Sekretua familiaren arteko harreman onetan eta produktu onak aukeratzean dago.

Juan Mari Arzak, Pedro subijana, Karlos Argiñano, Martin Berasategi, Zuberoa jatetxeko anaiak... asko daude. Eta gazteak ere ondo datoz, maisu hauengandik ikasten ari baitira. Sukaldaritzan Eskolak ere lan ona egiten ari dira nahiz eta behin ikasketak amaitu eta gero, esperientzia beharra duten ikasleek.

edo mahaian bestela pikatzeko aukera zabala eman eta ondoren plater bat aukeratu. Onena, ezarritako menua baino, aukera jartzea da. Sarrerak jan ondoren aukera zabala eman behar zaio bezeroari. Agian beteta egongo baita eta ondoren datorrena jateko gogo gehiegirik gabe izango da.

Ihauteriak datozela eta ze menu gomen-

Jose Maria Busca Isusi ez zen behar adina baloratu

Zenbat ezkontza izaten dituzue urtean?

Udaberrian hasi, maiztza, apirila inguru

elkartean nola jaten diren ikaragarria da. Euskaldunak eseri egiten gara jatera eta gustu onekoak gara.

Gipuzkoako kross txapelketa Ezkio-Itsason

Antolatzaileek eginiko lan txukunaren ondoren baliteke datorren urteko Euskadiko txapelketa bertan izatea.

Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen Ezkio-Itsasoko zelaietan Gipuzkoako kros txapelketa ikusteko asmoz. Azken urteetan kirol honek izan duen gorakada argi eta garbi ikusi ahal izan zen, bai partehartzaile kopurugatik eta baita proba honek piztu zuen ikusminagatik ere.

Antolatzaileek eginiko lana aipagarria izan zen. Lasterketa jarraitzen egon ziren komunikabide guztiek zein Gipuzkoako Atletismo Federazioko kideek, goraiatu egin zuten Urola Garaia Atletismo Taldeak, txapelketa prestatzen eginiko lana. Proba guztiak behar bezala, aurrez jarrita zeuden ordutegian hasi ziren eta hori, lasterkariak eta zaletuek, ederki asko eskertu zuten. Antolatzaileek berriz, Ezkio-Itsasoko udala eskertu nahi izan zuten lan egiteko erraztasun eta laguntza paregabea eman zuelako. Ibilbide aukeraketa ere egokia izan zela kontuan hartuz, baliteke, datorren urteko Euskadiko Kros Txapelketa bertan egi- tea.

Emaitza onak

Lasterketei dagokienez Goierri Garaia taldeak, Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko atletismo taldeak, emaitza txukunak lortu zituen.

Nagusietan, senior mailan, David Alonso irabazlearen atzetik sailkatu zen Zipriano Burcio. Legazpiarrak, iaz eginiko lana hobetu egin zuen zilarrezko domina lortuz. Jose Manuel Manso legazpiarra berriz, hirugarren izan zen brontzezko domina lortuz. Maila

honetan, taldeka, Urola Garaiko

Atletismo taldeak bigarren postua lortu zuen. Senior mailan, emakumeetan, Rosi Talabera hernaniarra izan zen azkarrena. Junior mailan Urola Garaiko Josu Diezek lortu zuen urrezko domina. Proba hau, Ismael Rodrigezek irabazi zuen baina hau jubenila denez, Josu Diezek jaso zuen lehen saria. Mikel Rodrigez zumarragarra, ez zegoen gustora egindako lasterketarekin baina hala ere, zazpigarrena izan zen. Taldeka Urola Garaiak bigarren postua eskuratu zuen. Neskatan, Ana Belen Pinilla, Idoia Sorogaiztoa, Aurkene Puente eta Rakel Martinek, nahiz eta espero bezala ez ibili, amaitzea lortu zuten.





**Mari
Tabernaria**

✓Zer izan nahi zenuen umetan?

Ileapaintzailea.

✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?

Beroa.

✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Ibili eta eskulanak.

✓Kolore bat?

Txuria.

✓Ze opari hartuko zenuke gustura?

Belarritakoak.

✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Elton John.

✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?

Nahiago nuke deskantsatzea, baina lana egin beharra izaten dut.

✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?

Urteak.

✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?
Eskuetako azkazalei.

✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?
Gauzak egiteko ekimenak edo ideiak.

✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?
Santa Barbara.

✓Urretxun izan ezik non biziko zinateke gustura?
Ez dago Urretxu baino herri hoberik.

✓Zein da duzun ohiturarik txarrena?
Irekiegia izatea.

✓Bete gabeko amets bat?
Kotxe ona edukitzea niretzat.

✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?

Entzun eta dantzatzeko.

✓Kantu bat.

Beniforen edozein.

✓Zain egon ala besteak zure zain?

Biak.

✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?

Leialtasuna eta laguntasuna.

✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?

Familiarengatik.

✓Gaua ala eguna?

Gaua.

✓Lo egiteko zer?

Irakurri egiten dut.

✓Gustoko janari bat?

Makarroiak eta txipiroiak.

✓Ura, ala...

Ura eta ardoa.

✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?

Bidaiatu.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



MAPFRE

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa:72 24 00

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75

Ikastolako aldizkaria martxan

Lourdesko Ama ikastolako Gida Batzordeak bideratu duen proiektua da eta jadanik lehen alea, kaleratu dute.

“Laiaketan” aldizkariak utzitako hutsunea betetzeko asmoz aldizkari berri bat sortu dute Urretxu-Zumarragako Lourdesko Ama ikastolakoek. Nahiz eta lehendik ere bi aldizkari kaleratu, “Intza” ingurugiroari buruzkoa eta “Aldizkaskarria” Lizeoko ikasleek egiten dutena, ikasle guztiengana iritsi nahi duen aldizkaria sortu nahi izan dute. Orainartean, ikasle bakoitzak bere gela eta mailako kontuak jakiten zituen soil-soilik, gaintzeko kurtsoetako neska-mutilek ze egiten zuten jakin gabe. Aldizkari honekin ordea, ikasle guztien artean lotura bat sortu nahi da. Elkarren berri ematen duen aldizkaria da, ikastola gehiago ezagutzen lagunduko duena. Aldizkariko Batzordea, guraso, irakasle eta Lizeoko ikasle batzuk osatzen dute. Bileratan erabakitzen dute ze gai jorratuko dituzten hurrengo alean.

Hiru hilabetekaria

Poliki-poliki, presarik gabe ekin diote lanari. Honelako proiektu bat aurrera eramateak duen lana ikusita ikasturte honetan hiru ale kaleratzeko konpromezuari eutsi nahi diote. Lehena, gabonetako oporren aurretik kaleratu zuten, bigarrena Aste Santuko oporren atarian aterako dute eta hirugarrena, ikasturte amaiera

baino lehen. Printzipioz hiru hilabetekaria izango da nahiz eta hurrengo ikasturteari begira, maiztasuna gehitzeko asmoa izan. Orri kopuru asko baina maiztasun txikia duen aldizkaria kaleratzea baino, nahia-goz dute informazio gutxiago baina maiztasun gehiago duena kaleratzea.

Printzipioz lau orrialdekoa

Lau orrialdetan argazki eta informazioa tartekatzen saiatu dira, irakurgarritasuna erraztuz. Lehen alean, aurkezpena, maila ezberdinetako ikasle taldeen argazki batzuk, agenda, aholku eta ikastolako jangelari buruzko informazioa eskaini dute. Atalak oraindik erabat zehaztu gabe dituzte baina helburua ikastola ezagutzea dela jakinda, gai edo helburu orokor honen inguruan arituko dira beti ere. Azdizkaria euskaraz kaleratzen bada ere, euskaraz ez dakiten gurasoei begira, erdaraz ere argibide batzuk ematen dira.

Ez dute produktu itxi bat egin nahi. Momentuz ikasleei banatu zaie baina agian, aurrerantzean, ikasle ohiei ere banatuko zaie. Herrian banatzeko aukera ere ez dute baztertzen baina dena den, aukera guzti hauek aztertzen ari dira oraindik.

OBAYINGOAN, BAI!

UREREXU ZUMARRAGA IKASTOLAKO ALDIZKARIA

SARRERA

Kaixo lagun. Ikastolako albistegia naiz. Gure ikastolan egiten diren hainbat ekintzen berriemaitze bihurtu nahi dut eta horretarako guztien laguntza beharko dut. Oraingo honetan taldeetan batek zain baldin banatu ere, gerora bide horri jarraitzea nahiago dut. Baina, bide hori jarraitzea baina berrondate ona eta irudimena kontuan hartuz, badakit aberasitako nautzuela. Denok bat egin behar dugula eta ni bitartekari bezela erabiliz, somutagoa izango da. Nire atalak, ikusiko dituzten ezberdinak dira: albisteak, ekintzak, antolatetako agenda... Guztien idizkiak biltzeko prest gaude, eta zeresanik ez izena asmatu beharko dugula. Eta ahalizu baino lehen guzti GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON BAT OPA DIZUEI.

Hola. Soy el nuevo noticiero de la ikastola. Quiero ser el informador de las actividades que se llevan a cabo en la ikastola y para ello necesito la ayuda de todos/as. Si ahora me ha confeccionado un pequeño grupo de colaboradores/as, en adelante me gustaría recoger la participación de todos/as. Al principio se nos hará un poco difícil, pero teniendo en cuenta la buena voluntad y la imaginación que nos caracteriza, ya sé que mejorará y mucho. Entre otros, algunos como intermediario será necesario tener en cuenta los avisos que tengo de preparar: noticias, actividades, organizaciones, agenda... Quiero recoger las ideas que tenemos y por supuesto, entre todos/as, me tendréis que dar un nombre. Ahora no me queda más que desearos una FELIZ NAVIDAD Y UN PROSPERO AÑO NUEVO.

Aldizkariari jarriko niokeen izena:

Izenaren arrazoiak:

Nire izen-deiturak:

Tuzten emaitza bete eta elakari onerarekin gure ikastolara aurrera dugun hitzak eta zerkiak berriemaitze ematen dituzte.

1998KO ABENDUA
OBAYINGOAN, BAI!

Izena jartzeko lehiaketa

Izen egoki bat jarri nahi izan diote aldizkariari eta horretarako, lehiaketa bat antolatzea bururatu zaie. Ikasleen artean harrera ona izan du lehiaketak. Irabazleak, ordain sariaz gain, berak asmatutako izena ale guztietan ikusteko ohorea izango du.

Dagoeneko bigarren aleari begira lanean ari dira. Lana errezteko asmoarekin, aldizkari batzordea handitu egin dute. Bigarren aleak, lehenak baino lan gutxiago ematea espero dute.

Helburua ikastola ezagutzea da”

Lehiaketak

✓ **Iparagirre saria literatura lehiaketa, bertso-paper lehiaketa, pintura, argazki eta komiki lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: ekainak 19.

✓ Ihauteriak.

Ostegun gizena (Otsailak 19)
Ogitarteko eta laranja banaketa eskoletan.
Zuhaitz eguna. Zuhaitz landaketa egingo da Pagoeta aldean.

Ostirala (Otsailak 20)
Dantzaldia **Joselu anaiak** taldearekin Areizaga Kalebarren enparantzán, 17:00tatik aurrera.


Larunbata (Otsailak 21)
Lurra dantza taldeak dantzatutako **LANZEKO** ihauteria.

✓ **Agerre Aundi baserriaren aldeko ekitaldiak**
Urretxuko Ederrenan
Otsailak 15 igandea arratsaldeko 6-etan.

Herri kirol jaialdia
Urretxu eta Ezkio-Itsasoren arteko norgehiagoka.
Aizkoran **Otamendi Ugartebururen** aurka.
Arto lokotsak biltzen **Larrea Enekoren** aurka.
Hari jasotzen **Goenatxo II.a** 250, 125 eta 100 kilotako harriekin.
Aizkoran **Larretxea** eta **Elorriaga, Arrospide** eta **Azurmendiren** aurka.



● Bartzelonan egon arren ez dugu zu zoriondu gabe gelditu nahi, zure 20. urtebetetzean.
ZORIONAK AINARA!!!



● Otsailak 18an 12 urte beteko dituzun egunean zoriontsu izan zaitezela, zure lagunen partez.
ZORIONAK JOSEBA!!!


● Zure urtebetetze eguna oso ondo pasatzea espero degu, batez ere kafe txo bat hartzera gonbidatzen bagaituzu.
ZORIONAK AINHOA!!!



● Aurten gogoratu gara zure urtebetetze egunaz. Asko maite zaitugun lagunen partetik.
ZORIONAK MAITE!!!



● Amona bazkari eder bat prestatu laister zure urtebetetzea ospatuko dugulako.
ZORIONAK MIREN!!!



● Otsailaren 10ean 12 urte egingo dituzun horretan, zure sendiaren partez
ZORIONAK JOSEBA!!!



† Zorionak zuri, zer moduz? Urtebete gehiago duzu UNAI. Zorion bero bero bat zure 9. urtebetetzean, bihotz-bihotzez zure familia.



● Zorionak Maialen!! Zure guraso eta ahizparen partetik. Egun zoriontsua igaro dezazula. Zenbat urte egin dituzu?



● Orain arte bezala "bihurru-bihuri jarrai dezazun, zorionak eta urte askotarako opa dizugu, aiton-amonan, guraso eta osaba-izebak.

EUSKALTEALEEN



ELKARTEA